Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2714

AGINDUA, 2011ko apirilaren 11koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) «Fundación Etikarte- Ética y Convivencia Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertuta geratu da Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) «Fundación Etikarte- Ética y Convivencia Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea. Kontuan hartu dira ondoko

AURREKARIAK

1.– Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) «Fundación Etikarte-Ética y Convivencia Fundazioa» eratu du –2011ko otsailaren 4an– José María Setién Alberrok, eta espedientean jasota dagoen dokumentazioa atxiki zaio.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta 2011ko apirilaren 8an fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txosten bana eman du.

3.– Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) «Fundación Etikarte- Ética y Convivencia Fundazioa»ren helburuak, estatutuetako 3. artikuluan hala baitago jasota, honako hauek dira:

1) Honako hauek bultzatu: gizarte Zientzien ikerketa, eta gizarte bizitzako zenbait arlotako elkarbizitzaren errealitate historiko eta zehatzaren ezagutza, zertarako eta, horien balorazio etikoa egin eta arian-arian taxutzeko, norbanakoa eta gizabanakoaren duintasuna kristau ikuspegitik aztertzeari dagozkion baloreen arabera.

2) Helburu horiek lortze aldera, azterlan, prestakuntza eta espezializazioko arlo akademikoetan gaituko dira gizabanakoak.

3) Gizarte-gaiei buruzko ikerketa lanak egitea bultzatuko du Fundazioak, fundazioarenak diren helburuen hariari jarraiki.

4) Egungo kulturan itsatsitako gizarte-komunikazioko teknika eta tresna modernoez ere baliatuko da, zertarako eta, Fundazioaren izpirituaren arabera, pentsamendua eta balorazio zehatzak dibulgatzeko, hori baita Fundazioaren helburua.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2714

ORDEN de 11 de abril de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la «Fundación Etikarte-Ética y Convivencia Fundazioa», de Lasarte-Oria (Gipuzkoa).

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, de la «Fundación Etikarte-Ética y Convivencia Fundazioa», de Lasarte-Oria (Gipuzkoa), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por don José María Setién Alberro se ha constituido el 4 de febrero de 2011-05-10 la «Fundación Etikarte-Ética y Convivencia Fundazioa», de Lasarte-Oria (Gipuzkoa), adjuntándose la documentación obrante en el expediente.

2.– Reunida la Comisión técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, ha emitido el 8 de abril de 2011 informe favorable a su inscripción.

3.– Los fines de la «Fundación Etikarte-Ética y Convivencia Fundazioa», de Lasarte-Oria (Gipuzkoa), según establece el artículo 3 de sus estatutos, son los siguientes:

1) Impulsar el estudio de las ciencias sociales y el conocimiento de la realidad histórica y concreta de la convivencia en los diversos ámbitos de la vida social, en orden a realizar su valoración ética y a colaborar en su progresiva configuración en conformidad con los valores propios de una concepción cristiana del ser y de la dignidad de la persona humana.

2) La capacitación de personas para el logro de esos objetivos se realizará en los diversos niveles académicos de estudio, formación y especialización.

3) La Fundación apoyará la realización de trabajos de investigación sobre temas sociales, en la línea propia de sus objetivos fundacionales.

4) Utilizará también la técnica e instrumentos modernos de comunicación social, propios de la cultura actual, en orden a lograr la pretendida divulgación del pensamiento y de valoraciones concretas, en conformidad con el espíritu de la Fundación.

4.– Estatutuetako 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera, fundazioaren helbidea honako hau izango da: Caddie plaza, 1, Lasarte-Oria (Gipuzkoa). Euskal Autonomia Erkidegoan nagusiki burutuko ditu bere jarduerak Fundazioak, eta Gipuzkoan batik bat.

5.– Hasierako dotazioa ehun eta berrogeita hamar mila eurokoa (150.000) da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

6.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

7.– Hasierako Patronatua, Fundazioaren estatutuetako 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Fundazioaren eraketa eskrituran ezartzen den moduan, honen ondoren azaltzen diren kideek osatzen dute eta patroiaren kargua behin betiko izango da.

4.– Conforme disponen los artículos 5 y 6 de los estatutos, el domicilio fundacional queda fijado en la Plaza del Caddie 1, de Lasarte-Oria (Gipuzkoa). La Fundación desarrollará principalmente sus actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, sobre todo, en Gipuzkoa.

5.– La dotación inicial asciende a la cantidad de ciento cincuenta mil (150.000) euros. Se acredita documentalmente la realidad de dicha aportación en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

6.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, conforme lo previsto en los Estatutos fundacionales.

7.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional, estará integrado por los siguientes miembros, teniendo el cargo de Patrono duración indefinida, en virtud de lo dispuesto en el artículo 10 de los estatutos fundacionales:

Kargua	Patroia
Lehendakaria	José María Setién Alberro
Lehendakariordea	Francisco Garmendia Aguirrezabalaga
Idazkaria	Elena Teresita Echeberria Elosegui
Diruzaina	Kepa Bilbao Gaubeca
Bokala	José María Madina Arana
Bokala	Javier Andonegui Mendizábal
Bokala	Abel López de Aguileta Quintana

Cargo	*Patrono*
Presidente	*Don José María Setién Alberro*
Vicepresidente	*Don Francisco Garmendia Aguirrezabalaga*
Secretario	*Doña Elena Teresita Echeberria Elosegui*
Tesorero	*Don Kepa Bilbao Gaubeca*
Vocal	*Don José María Madina Arana*
Vocal	*Don Javier Andonegui Mendizábal*
Vocal	*Don Abel López de Aguileta Quintana*

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos, mediante alguna de las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuko 4.1.a) artikuluan eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona juridiko pribatu batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa betez.

Aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) «Fundación Etikarte- Ética y Convivencia Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, gaurko dataz eta F-293 zenbakiaz, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak zazpigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta Fundazioari bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio; eta beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Adminis-

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 3.1 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, el artículo 4.1.a) del Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 a 39 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación.

RESUELVO:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-293, de la constitución de la «Fundación Etikarte- Ética y Convivencia Fundazioa», de Lasarte-Oria (Gipuzkoa), así como de la composición inicial del Patronato, integrado por los miembros que figuran en el antecedente de hecho séptimo, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la sección tercera del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 2.2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y remitir la misma a la Fundación.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País

trazioarekiko Auzietako Salan, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera hil biko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 11.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.